

DIRULAGUNTZETARAKO PROGRAMEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

2. PROGRAMA: OHIKO LEHIAKETEN BARRUAN IZAN GABE BILBON JOKATZEN DIREN INOIZ EDO BEHINGO KIROL EKITALDIETARAKO DIRULAGUNTZA

Dirulaguntzen programa honetarako zenbatekoa: 34.100 €

Edukia

1.	HELBURUA.....	2
2.	LAGUNTZEN ZENBATEKOAK.....	2
3.	ENTITATE ONURADUNAK	2
4.	ESKABIDEAK AURKEZTEA.....	2
5.	ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA	2
6.	AURKEZTUTAKO ESKABIDEAN HUTSAK ZUZENTZEA	2
7.	ESKABIDEAK ONARTZEA	3
8.	BALORAZIO IRIZPIDEAK	3
9.	DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.....	4
10.	DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA	5
11.	DIRULAGUNTZEN ALDAKETA	6
12.	DATUEN BABESA.....	7
13.	DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA	7

1. HELBURUA

Dirulaguntzak ematea **inoiz edo behin** parte hartzeko kirol-ekitaldietarako, Bilbon 2024an jokatzekoak direnetarako, baldin eta:

- Kirol osasungarria, jostetazkoa eta integratua sustatzen badute.
- Hiria bera sustatzen badute.
- Bilbon eragina badute.
- Jardunaldi gehiagoko kiroleko formazio-ekitaldiak antolatzen badituzte, pertsonen kirol arloko formazioa emateko xedea dutenak.

2. LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Inoiz edo Behingo Kirol-Ekitaldiak	34.100 €
------------------------------------	----------

Informazio guztia Bilbao Kirolak udal entitatearen web-gunean dago eskura:
www.bilbaokirolak.eus

3. ENTITATE ONURADUNAK

- a. Pertsona juridikoak, Bilboko udalerrian kirol-ekitaldi garrantzitsuak eta Bilboko udalerrian eragina dutenak gauzatzen dituztenak.
- b. Pertsona juridikoak, kirol-arloan prestakuntza-ekitaldiak edo -ikastaroak egiten dituztenak.
- c. Kirol-entitateek, dirulaguntza hauek eskuratzeko aukera izango badute, IFZ bat eduki behar dute (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia).
- d. Kanpoan geratzen dira:
 - Bilboko Udalaren Espazio Publikoaren Bulegoaren baimenik ez duten ekitaldiak, baimena beharrezkoa izanik.

4. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira, Bilbao Kirolak webgunean eskuragarri egongo den aplikazioaren bidez.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdia BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita eta 2024ko urriaren 21era arte, egun hori barne.

6. AURKEZTUTAKO ESKABIDEAN HUTSAK ZUZENTZEA

Baldin eta eskabidea:

- Ez badago ondo beteta.
- Agiriak falta badira.

Bilbao Kirolak udal entitateak abisua emango dio entitateari eskabideko hutsak zuzen ditzan. Hamar (10) egun balioduneko epea izango du horretarako, abisua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Hala egin ezean, Bilbao Kirolak udal entitateak ezetsi egingo du eskaera¹.

7. ESKABIDEAK ONARTZEA

Eskabidea ezetsi egingo da, baldin eta:

- Ez bada aurkezten jardueraren memoria, puntuazio irizpideetan adierazitako eskemari eta aldagaiei jarraituz.
- Ez badator bat Bilbao Kirolak udal entitatearen lerro estrategikoekin.
- Ekitaldia ez badator bat ezarritako helburuekin.
Ekitaldia ez bada bideragarria teknikoki edo ekonomikoki.

Erakundeek 2024ko dirulaguntzak aurkezteko dokumentazioa izeneko eranskina bete eta erantsi behar dute, bai eta eskabidea aurkezten duten lote bakoitzeko eranskin espezifiko guztiak ere.

8. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean esleituko dira.

Atal honetan Kirol-programen antolaketan koordinatu behar diren hainbat faktore baloratzen dira, Bilbao Kirolak erakundeak ezarritako irizpideen arabera. Justifikazio-programak/memoriak eskabidearekin batera aurkeztu bhear dira, eta puntuazio-irizpideak osatzen dituzten faktoreen ordenari jarraiki egituratu behar dira.

Dirulaguntza programa honen onuradun izateko, gutxienez 50 puntu lortu beharko dira.

Gehieneko puntuazioa 100 puntukoa izango da, honela banatuta:

KONTZEPTUA	ZENBATE KOA	ERAGINA	JARDUNAL DIAK	AURRE KONT UA.	BK-REN DESKONT UA.	BERDINTAS UNA	INKLUSIOA	EUSKARA
Inoiz edo behingo kirol-ekitaldiak	34.100 €	20	15	10	10	20	15	10

- Eragina: gehienez ere 20 puntu.
 - Belaunaldi anitzeko jarduerak izatea (45 urte baino gehiago).
Gutxienez 10 parte-hartzaile jarduera bakoitzeko 20 puntu
 - Belaunaldi anitzeko jarduerak izatea (25 eta 45 urte bitartekoak).
Gutxienez 10 parte-hartzaile jarduera bakoitzeko 20 puntu.
 - Belaunaldi anitzeko jarduerak izatea (6 eta 25 urte bitartean).
Gutxienez 10 parte-hartzaile jarduera bakoitzeko 20 puntu.

¹ Hala dio 39/2015 Legearen 68.1 artikulua (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

- Jardunaldi kopurua: gehienez ere 15 puntu.
 - Ekitaldiak 2 jardunaldi edo gehiago izanez gero: 10 puntu.
 - Ekitaldiak jardunaldi 1 izanez gero: 5 puntu.
- Aurrekontua: gehienez ere 10 puntu.
 - Ekitaldiaren aurrekontu osoaren % 25 baino gutxiago eskatzen bada: 10 puntu
 - Programaren aurrekontu osoaren % 25 baino gehiago eskatzen bada: 5 puntu
- Bilbao Kirolak udal entitatean abonatuak eginez gero: 10 puntu.
 - Kirol ekitaldiak deskontuak edo abantailak eskaintzen badizkie Bilbao Kirolak entitatean abonatuta dauden pertsonak: 10 puntu
 - Sarrera doakoa bada: 0 puntu.
- Berdintasuna: gehienez ere 20 puntu.
 - Berariaz emakumeendako ekitaldia bada: 20 puntu.
 - Ez bada berariaz emakumeendako baina berdintasun-plana edo antzeko bat badauka: 20 puntu.
 - Antolakuntzako boluntarioen eta langileen artean % 40 baino gehiago emakumeak badira: 15 puntu.
- Inklusioa: gehienez ere 15 puntu.
 - Inklusiorako berariazko programa badu: 10 puntu.
 - Ez bada berariaz inklusiorako, baina hitzarmenak baditu arlo horretako elkarteekin: 5 puntu.
- Euskara: gehienez ere 10 puntu.
 - Euskararen aldeko ekitaldia bada: 20 puntu.
 - Jarduera guztiak euskaraz egingo badira: 20 puntu.
 - Ez bada berariaz euskararen aldekoa, baina euskara erabiltzen bada webgunean eta sare sozialetan: 5 puntu.
 - Ez bada berariazkoa, baina euskara erabiltzen bada karteletan eta prentsan: 5 puntu.

9. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

50 puntu lortu behar dira gutxienez, dirulaguntzaren onuradun izateko.

- Dirulaguntzen batura, orotara, ezin da izan 34.100 € baino gehiago².
- Ekitaldiak ebaluatzeko LEHIAZKO NORGEHIAGOKA baliatuko da:
- Aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, lehentasunak ezartzeko.
- Esleitu den zenbatekoa kalkulatzeko, ehuneko jakin bat esleitu zaie puntuak, halako moldez non:

Puntuak	Eskatutako zenbatekoaren ehunekoa
---------	-----------------------------------

² 2. puntuak: Dirulaguntzen zenbatekoa

100	100%
90	90%
80	80%
.....	
.....	
Eta, hala, hurrenez hurren	

- Ehunekoa ezarriko zaio dirulaguntza moduan eskatu den zenbatekoari.
- Dirulaguntza ezingo da izan, inolaz ere, eskatutako zenbatekoa baino handiagoa.
 - Dirulaguntza ezingo da izan, inolaz ere, 1.500 €³ baino gehiago, eta ez da izango, inolaz ere, ekitaldiaren kostuaren % 50 baino handiagoa, dekretuaren aitizineko orokorretan ezarritakoaren arabera.
 - Ez zaizkio emango 2 dirulaguntza baino gehiago entitate berari.

10. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

- Ekitaldiaren aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da⁴.
- Jarduera amaitu ostean, pertsona edo entitate horrek honako hauek aurkeztuko ditu:
 - Gastuaren deskribapena; gastuak zuzeneko zerikusia izan behar du diruz lagundutako jarduerarekin.
 - Diruz lagundutako ekitaldiaren memoria.
 - Ekitaldiaren gaineko informazio- eta publizitate-material guztien jatorrizko alea.
 - Jardueraren argazkiak, formatu elektronikoan.
 - Ekitaldiaren diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
 - Gastua egiaz egin dela berresten duten dokumentu jatorrizkoak:
 - Ekitaldia garatzeko epearen barruan.
 - Aurrekontuaren % 100arenak.
 - Agirien fotokopiak, alderatzeko.

³ Gehienez ere eman daitekeen zenbatekoa kontzeptu batengatik, 2023an.

⁴ 38/2003 Legea, eta Ordenantza Orokorra, arautzen dituen Bilboko Udalak eta haren organismo eta zuzenbide publikoko entitateek deialdi bidez ematen dituzten dirulaguntzen oinarriak (BAOn argitaratu zen, 138. zenbakiko alean, 2016-07-20).

- Inprimaki ofiziala beteta (ORDAINAGIRIEN ZERRENDIA-LABURPENA- 4. ERANSKINA).
- Aurkeztutako fakturen ordainagiriak.
- Aurkezteko epea:

2 hilabete, honela kontatuta:

- Ekitaldia amaitzen den egunetik (Amaituta EZ badago dirulaguntza ordaintzen denean).
- Dirulaguntza ordaintzen den egunetik (Amaituta badago dirulaguntza ordaintzen denean).

- Agiriko hutsak egiaztatzea eta zuzentzea:

Bilbao Kirolak udal entitateak aztertu egingo ditu aurkeztutako agiriak, ea zuzen dauden eta guztiak dauden egiaztatzeko.

Hala ez bada, idazki bat bidaliko dio entitateari, honako hauekin:

- Eskatuko dio zuzentzeko hutsa eta/edo aurkezteko falta diren agiriak.
- Adieraziko dio ezen, hala egin ezean, ezetsi egingo duela eskabidea.

Entitateak **10 egun natural** edukiko ditu, abisua⁵ jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hutsa zuzentzeko eta/edo agiriak aurkezteko.

- Entitatearen obligazioak:

Dirulaguntza zein ekitalditarako eskatu zuen, gauzatu egin behar du hura.

Aldaketaren bat eginez gero, jakinarazi egin beharko dio Bilbao Kirolak udal entitateari, aurretiaz.

- Penalizazioa:

Entitateak itzuli egin beharko ditu jasotako diru-zenbatekoak eta berandutze-interesak⁶, baldin eta:

- Ez badu justifikatzen.
- Justifikazioa ez bada behar bestekoa.
- Dirulaguntza zein jardueratarako eskatu zuen, ez badu betetzen hura.

11. DIRULAGUNTZEN ALDAKETA

⁵ Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua.

⁶ Hala ezartzen du Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikulua 1. apartatuak.

Baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartu zen parametroetako bat aldatzen bada, dirulaguntza ere aldatu ahal izango da, baldin eta zertarako eskatu zen eta hartarako erabili bada.

12. DATUEN BABESA

- Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak: BILBAO KIROLAK – Udalaren Kirol Erakundea Tokiko Organismo Autonomoa. Nafarroa 5, 4. solairua. 48001 Bilbo
- Datuen babeserako ordezkariarekin harremanetan jartzeko datuak: datos@bilbao.eus
- Tratamenduaren helburua: Pertsonentzako edo entitateentzako laguntza publikoak eta dirulaguntzak kudeatzea, kirola sustatzearekin zerikusia dutenean.
- Datuak gordetzeko denbora: Datuak gordeko dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran.
- Tratamenduaren oinarri juridikoa: Tratamendua beharrezkoa izatea interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoez baliatuz bete beharreko misio bat betetzeko.
- Norentzat diren: Kontuen Auzitegia, aldizkari ofizialetan argitaratzea eta Dirulaguntzak eta Laguntza Publikoak Publizitatearen Sistema Nazionalean argitaratzea.
- Eskubideak baliatzea: Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuak tratatzeari mugak jartzeko edo aurka egiteko ere. Horretarako, idazki bat bidali beharko du Nafarroa kalea 5, 4. solairua 48001 Bilbao helbidera. Era berean, dagokion kontrol-agintaritzari (Datuak Babesteko Agentzia) erreklamazioa egiteko eskubidea du.

13. DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA

- Kirol entitate onuradunek, beren kirol-jantzi ofizialean, Bilbao Kirola udal entitatearen logotipoa eroan behar dute, 15 x 7 cm tamainakoa edo handiagoa. Bilbao Kirolak berak emango du logotipoaren diseinua.
- Aurreko ataletan ezarritakoa era batera edo bestera betetzen ez bada, dirulaguntzaren % 100 itzuli beharra gerta liteke.
- Euskara eta gaztelania erabili beharko dira:

- Sortzen diren publizitate-testuetan.
- Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten jendaurreko esku-hartzeetan.
- Megafonia bidezko mezuak (lehenengo euskaraz, eta gero gaztelaniaz).